

Helburu didaktikoak	
1. Indar motak, efektuak, neurketa eta beren izaera bektoriala aztertuz eta hainbat euskarritan emandako informazioa balioetsiz, indarrak identifikatu, indarren diagramaren bidez irudikatu eta indarren konposizioaren kasu sinpleak kalkulatu.	<p>1.1. Emandako euskarrietan eragiten duten indar motak ondo identifikatu ditu</p> <p>1.2. Gorputzen gainean eragiten duten indarrak, indarren diagramaren bidez ondo irudikatu ditu.</p> <p>1.3. Indarren izaera bektoriala kontuan izanik, indarren balioak kalkulatu ditu.</p>
2. Indarrak eta higiduraren arteko erlazioa aztertuz, dinamikaren printzipioak definitu eta eguneroko bizitzan gertatzen diren kasuak printzipio horien bidez azaldu eta kalkuluak burutu.	<p>2.1. Emandako informazioa interpretatu eta Newtonen legeekin ongi erlazionatu du, arrazoi zientifiko egokiak emanez.</p> <p>2.2. Newtonen legeetan (dinamikako hiru legeak eta grabitazio unibertsalaren legea) oinarrituta, kalkuluak ondo egin ditu.</p>
3. Orekan dauden fluidoaren oinarritzko printzipioak definitu eta interpretatu, eguneroko bizitzan gertatzen diren kasu arruntei buruzko kalkulu sinpleak egin.	<p>3.1. Presio kontzeptuaren inguruko kalkulu egokiak egin ditu.</p> <p>3.2. Problemaren eskakizuna ondo identifikatu du, fluidoaren oinarritzko printzipioa erabiliz.</p> <p>3.3. Fluidoaren oinarritzko printzipioan oinarrituz, kalkulu egokiak egin ditu</p>